

Galdera

Euskara batuan **esan** **iezdazu** eta ***esaidazu** berdin erabil daitezke bata zein bestea ala bigarrena euskalkiko forma da –nire kasuan, bizkaiera–?

Erantzuna

esan **iezdazu** eta **esadazu** dira forma arautuak.

1/ Euskaltzaindiak argitaratutako [Euskal Aditz Batua, 180. or.](#) liburuan (1979) badira horrelako adizkien paradigmak, aditz trinkoen atalean, eta *esan/erran* aditzaren paradigmaman, forma hauek ditugu: esadak, esaguk, esadazu, esadazue... Halaber, *eman* aditzaren paradigmatan [Euskal Aditz Batua, 170. or.](#), emadak, emadazu, emadazue, emaguk, emaguzu, emaguzue eta abar ageri dira.

2/ [Euskal aditz batua](#) liburuan ageri diren aditz trinko oro ez dira berez trinko-trinkoak; batzuk **semisintetikoak**, **sasitrinkoak** edo **trinkotuak** dira (hiru termino horiek erabiltzen dira), hau da, aginterazko adizki perifrastiko laburtuak dira. Berez, aditz perifrastikoak dira, baina erabiliaren erabiliaz higatu dira eta aditz trinkoen forma hartu dute. NORK-dun adizkiekin gertatzen da hori.

Forma trinkoak dira, esaterako, [ekarri] bekar, bekar-te, bekar-tza, bekar-tzate, baina forma trinkotuak dira ekartzak/-n, ekarriozu, ekartziozu... Orobat [eraman] eramazu, eramatzak/-n, eramazkiozu...; [esan] esadak/-n, esaguk/-n, esadazue...; [jakin] jakik/-n, jakizu...; [eman] emadak/-n, emaiozu...; [egin] egiguk, egiozu...; [utzi] uztazu... Forma *trinkotu* horiek arauko forma homologatuak dira, xehetasun historiko-morfologikoak gorabehera.

[Euskal aditz batua](#) liburuko tauletan ageri ez diren formetan, esate baterako, *begiratu* aditzaren [?]begiraiozu forma, edo *erakutsiren* [?]erakustak, edo *kontaturen* [?]kontaidazu, edo *ulerturen* [?]ulertuidan eta antzekoetan, edota zalantzazkoetan, hobe da forma perifrastikoa erabiltzea, hori baita aukera segurua: begira iezaiozu, erakuts iezdazu, konta iezdazu, uler ieztadan.

Forma trinkoa arauturik dagoenean hura hobesteko aukera egin dute estilo-liburu batzuek, esate baterako, EIMArenek, Euskaltzaindiak horretaz araurik eman ez badu ere. Esate baterako, egiozu kasu aukera lehenesten dute egin iezaiozu kasu aukeraren aldean.

3/ Adizki trinko berriak. Gaurko literaturan, premiak hartaturik, badira analogiaz sortutako adizki trinkoren forma berriak, Euskaltzaindiak arautu gabeak eta tradiziorik gabeak: darantzute, darakuste, daitort, damait, zemaien, zirudidan, nirudien, darakust, diragar, darantzu, zeragigun...; edota, lehen esan bezala, trinkotu askoren formak: begiraiozu, erakustak, erakutsidak/-n, kontaidazu, ulertuidan, komentaiezu...

Euskaltzaindiak horiek arautu ez baditu ere, horien erabilerari buruz, esanguratsua da gorago aipatutako [Euskal aditz batua, 181. or.](#) liburuko malgutasunaren aldeko irizpidea: «Euskal literaturan zehar beste zenbait aditz ere agertzen da forma sintetiko duenik. Aski ez-ezagunak direlako, ordea, eta beren oso forma gutxi agertzen direlako, ez ditugu paradigmak osatu izan, hau Euskaltzaindiaren egitekoa ez baizik gehienez ere gramatikarien eta euskal idazleena dela iruditzen zaigulako».